



GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

Erakunde Harremanetarako
Sailburuordetza
Gobernu Irekiaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Viceconsejería de Relaciones
Institucionales
Dirección de Gobierno Abierto

EUSKADIKO GARDENTASUNAREN LEGE-AURREPROIEKTUA

ARAU-ERAGINA AZTERTZEKO MEMORIA

PROPOSAMENAREN EGOKITASUNA ETA AZTERTUTAKO ERREGULAZIO-AUKERAK

Gardentasunari buruzko lege-aurreproiektuak ondo berezitate hainbat alderdi arautzaile jasotzen ditu, eta, aurreproiektuari emandako izendapenean islatzen ez badira ere, artikuluetan zehar xehatzen dira: batetik, gure ordenamenduan gardentasunaren kulturari buruzko arau bat sartzea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen esparruan eskatzen den bezala, parte-hartze publikoko parametroak gehituz, ekintza publikoan printzipio demokratikoa indartzeko; eta, bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentaraua txertatzea, Batasunaren Zuzenbideko arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa (2/2023 Legea).

A) Arau honen beharra, beraz, bikoitza da.

Gardentasunari eta parte-hartze publikoari dagokienez, ELGak eta Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzak gomendatzen dute gobernu irekiaren politika bultzatzea administrazio publikoaren barruan, nazioarteko estandarrei jarraituz. Gogorarazi behar da 2018az geroztik Eusko Jaurlaritza, 3 foru-aldundiak eta 3 hiriburu-udalak tokiko OGPko kide direla gizarte zibilarekin batera. Horrela, Euskadi Aliantzako kide den munduko 20 eskualdeetako bat bihurtu zen, eta

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

irekia@euskadi.eus



harrezkero 2018-2020 aldirako Erakundearteko Ekintza Plana garatu da, eta gaur egun 2021-2024 aldirako Ekintza Plana gauzatzen ari da.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak EAEko legegilearen garapen bat eskatzen du, zeina ez baita burutu, partzialki baizik, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearekin (EAESL) eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearekin (ETEL), ezta 5/2022 Lege sektorialekin ere (5/2022 Legea, ekainaren 23koa, EAEko Dokumentu Kudeaketa Integralari eta Dokumentu Ondareari buruzkoa) eta 10/2021 Legearekin (10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa). Halaber, gardentasunaren balantzeari buruzko txostenak urtero bidaltzen zaizkio Gobernu Kontseiluari, haren berri izan dezan. Txosten horietan ikus daiteke euskal herritarrek EAEko sektore publikoari informazio publikoa eskuratzeko egiten dizkioten eskaerak ugaritzen ari direla, eta hobetzeko aukerak daudela.

[Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren](#) bidez Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea sortu zen, baina batzorde horrek Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komun edo toki-erakundeetako administrazio publikoen eta euskal sektore publikoko gainerako erakundeen berriazko nahiz ustezko ukatzei buruz aurkezten diren erreklamazioak ebazteko eskumenak baino ez ditu; baina ez die erantzuten lege honen bidez kontuan hartzen diren beste elementu garrantzitsu batzuei. Lege-mailako arau batek aukera emango luke, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan gardentasuna bultzatzeko antolamendu- eta kudeaketa-eredua finkatzeko.

Ilido beretik, euskal ordenamenduak gobernu irekiaren eredu bati heldu behar dio, parte-hartze publikoaren parametroei dagokienez.

Arau-hausteei buruz informatzen duten pertsonak babesteari dagokionean, estatu-ordenamenduak Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentaraua Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruz informatzen duten pertsonak babesteari buruzkoa 2/2023 Legearen bidez

transposizioa aldatu du. Zuzentarau hori aprobetxatu da Zuzentarauaren beraren edukia zabaltzeko eta, nolabait, arau-hauste penalak eta administratiboak salatzen ordenamenduan aitortutako bide eskasekin amaitzeko.

Informatzaileen segurtasun- eta babes-esparrua aurrez ezarritako kanalen sistema baten bidez eraiki da, informazioa komunikatzeko. Kanal horiek, alde batetik, erakundeen barruko kanal baten bidez egituratzen dira, eta, bestetik, erakundeen kanpoko kanal independente baten bidez.

lido horretan, EAEko sektore publikoak dagoeneko antolatu eta onartu du bere barne-kanala, argitaratu berri den ekainaren 13ko 89/2023 Dekretuaren bidez (Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-urratzei buruzko informaziorako eta informatzaileak babesteko barne-sistema sortu eta arautzekoa).

Beraz, kanpoko kanala deritzona artikulatu eta arautu behar da, bai Zuzentarauak bai 2/2023 Legeak agintaritze independente gisa eskatzen dutena, eta horrek, legearen bitartekaritza eskatzen du hura tresna juridiko gisa gauzatzeko.

2/2023 Legearen arabera, AKEek beren kanpo-kanalak sortu behar dituzte, edo, bestela, estatuko Informatzailea Babesteko Agintaritze Independentearekin (IBAI) hitzarmena sinatu, kanpo-kanal gisa jardun dezan. Nolanahi ere, 2/2023 Legea indarrean jarri eta sei hilabeteko epean kanpoko informazio-kanalak ez badira arautzen, lege hori aplikatuko da.

Euskal legegileak, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak (EAEE) hala aginduta, bere antolamendu-egiturak arautu eta bere autogobernu-erakundearen antolamendu, araubide eta funtzionamenduari buruzko 10. artikuluko 2., 6. eta 24. paragrafoetan aurreikusitako eskumenak garatu behar ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide substantiboaren berezitasunetatik eta berezko antolamendutik eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikotik eratorritako administrazio-prozedura.

Esandako guztiarekin, behar bezala justifikatutzat jotzen da aurreproiektu honen aukera eta beharra; izan ere, ondoren azalduko den bezala, ez da posible aurreproiektu horretan jasotako gaien erregulaziorik eza dakarren aukera bat.

B) Kontuan hartu diren aukera erregulatzailleak edo ez-erregulatzailleak.

Gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen alderdiei dagokienez, EAEko sektore publikoko Gobernu Irekiaren esparruan, hainbat aukera daude proposatutako erreformaren alderdiei heltzeko:

a) Lege berriak onartzea edo daudenak unean-unean erreformatzea, hainbat arau-tresna autonomoren bidez (gardentasun-lege bat; partaidetza-lege bat; arau-urratzeei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko lege bat);

b) Kontuan hartzen ditugun gaietara berez lotutako erregulazio-beharrak ardatz nagusi iraunkorrak ezartzen dituen lege espezifiko bakar batean sartzea, eta berriki onartutako Euskal Sektore Publikoaren Legearekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu Kudeaketa Integralari eta Dokumentu Ondareari buruzko Legearekin eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearekin bat etorritz.

Gardentasunaren eta parte-hartzearen kultura lege sektorialetan txertatzeak gardentasunaren printzipioa bera zatikatzea eragingo luke eta berau lausotuko luke. Horrek gainera, botere publikoek gizartearen aurrean erantzun beharra izateak, moduak demokratikoan egiteak eta ekintza publikoan parte hartzeko aukera eman behar dutelako sortzen den indarra kenduko lioke.

Erreferentziako testu bat onartzeak koherentzia emango du Gobernu Irekiaren kontzeptu zabalari buruzko printzipio eta arau orokor sakonenak ezartzean, gardentasuna, herritarren parte-hartzea, interes-taldearen erregulazioa eta plangintzaren bidez kontuak ematea oinarri hartuta.

Bestalde, arau-urratzeen berri ematen duten pertsonak babesteko, lege bat behar da, bai Europako, bai Estatuko ordenamenduek eskatzen duten kanpoko informazio-kanala ezarriko duena.

Gardentasunaren eta parte-hartze publikoaren alderdiak eta salatzaileak babestearen alderdiak testu bakar batean batzearen helburua ekintza publikoaren alderdi horiek bateratzea da, baliabideen ekonomia bat ahalbidetuz

eta agintaritza bakar bat sortuz. Agintaritza horrek funtzionalki garatzen ditu bai gardentasun-aginduei lotutako ahalak, bai kanpoko informazio-kanalari lotutakoak, bi gai horiek, azken batean, funtsezko helburu berean bat egiten baitute: gure sistema demokratikoa eta erakundeen kontrola indartzea.

EDUKIAREN DESKRIBAPENA ETA AURREIKUSITAKO ARAUAREN AZTERKETA JURIDIKOA.

Aurreproiektuaren edukian sartu aurretik, iraganean Eusko Legebiltzarrean izapidetzen hasi ziren baina onartu ez ziren gardentasunari buruzko ekimenak aipa daitezke.

Hala, X. Legegintzaldian, Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Lege-proiektua izapidetu zen Legebiltzarrean. Aurreproiektu hori Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2015/11/10ean, baina bertan behera geratu zen:

https://www.legebiltzarra.eus/ords/f?p=CTP:INICIATIVA_DETALLE:2626789066043::NO:RP:P18_ID,P18_EXPAND:42918,N&p_lang=es

Aurreko legegintzaldian (XI.a), bi lege-proposamen aurkeztu ziren, X. legegintzaldiko lege-proiektuaren xedea bitan banatzeko. Bi proposamenak ere bertan behera geratu ziren legegintzaldiaren amaieragatik:

- Euskal Sektore Publikoaren Lege Proposamena:
https://www.legebiltzarra.eus/ords/f?p=120:18:114929827323666::NO:RP,RIR:P18_ID,P18_EXPAND:57747,N
- Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege-proposamena:
https://www.legebiltzarra.eus/ords/f?p=120:18:117287904630130::NO:RP,RIR:P18_ID,P18_EXPAND:57746,N

Azkenik, XII. legegintzaldian, 2022ko maiatzean, 3/2022 Legea ekarri zuen Euskal Sektore Publikoaren lege-proiektua aurkeztu eta onartu zen:

https://www.legebiltzarra.eus/ords/f?p=120:18:114653530452334::NO:RP,RIR:P18_ID,P18_EXPAND:73423,N

Eusko Jaurlaritzaren 2023rako Urteko Araugintza Planean gardentasunari eta parte-hartze publikoari buruzko lege-aurreproiektua dago, baina ez da ezer zehazten kanpoko informazio-kanalaren erregulazioari buruz, seguruenik otsailaren 20ko 2/2023 Legea, arau-urratzeak eta ustelkeriaren aurkako borroka arautzen dituen, aurten hasi baitzen.

Aurreproiektuaren edukiaren deskribapena

Aurreproiektuak bost titulu ditu, memoria honetan adierazitako gaiak arautzeko: gardentasuna eta herritarren parte-hartzea, plangintzarekin batera; eta informatzaileak babesteko kanpoko kanala.

Gai horiei testu bakar batean heltzea erabaki denez, arauaren egiturak honela heltzen die:

I. tituluak xedeen, printzipioen eta eskubide eta betebeharren zerrenda orokorrak jasotzen ditu, bai eta legearen aplikazio-eremua praktikoago zehaztea ere. Azken horri dagokionez, gardentasunari buruzko arau espezifikoari buruzko bi alderdi nagusiak eta horien adierazpenak bereizten dira, publizitate aktiboari eta informazio publikoa eskuratzeko eskubideari dagokiena; eta, bigarrenik, informatzaileak babesteko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko Europako sistema ezartzeari buruzkoa.

Aplikazio-eremua, gardentasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikora mugatzen da, eta, beraz, badirudi EAEko erakunde-maila bakoitzak bere antolaketa propioa duela, hala nola toki-maila, arautzen duen Legearen arabera, eta foru-maila, kasuan kasuko foru-arauak baitituzte gardentasunaren arloan. Administrazio autonomikoaren esparrura mugatutako aplikazioari dagokionez, publizitate aktiboko betebeharrak erakunde publikoen eremura ez ezik, jarduera publikoa bideratzeko erabiltzen diren subjektu eta erakunde pribatuetara ere bideratzen direla zehazten da, bai dirulaguntza edo laguntza publikoen hartzaileak direlako, bai administrazio-ahalak gauzatzen

dituztelako edo zerbitzu publikoak ematen dituztelako, hargatik eragotzi gabe legezko gaikuntza bereziak izatea edo dagozkien kontratu-harremanak egotea.

Informatzaileak babesteko kanpoko kanalari buruzko bigarren blokeari dagokionez, aurreproiektuak 2/2023 Legearen laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari erantzuten dio; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan kanpoko kanalaren ahalmenak baliatzeari dagokionez, EAEko legegileak ezarriko du bere araudi autonomikoan. Horrela, aurreproiektuaren arabera, beharrezkoa eta egokia da euskal erakundeak Euskal Autonomia Erkidego osorako kanpoko informazio-sistema bakarrari atxikitzea, eta horrek esan nahi du aplikazio-eremua zehaztu behar dela, aipatutako bigarren alderdiari dagokionez, Euskal Sektore Publiko osoari dagokionez.

Ildo horretan, ez dirudi arrazoizkoa denik EAEko lurraldean kanpoko 5 kanal batera egotea: Estatuko administrazio orokorraren berezko kanala, EAEko sektore publikoarena eta foru-erakunde bakoitzari dagokiona. Gertaera hori larriagotu egiten da sektore pribatuarekin lotutako salaketetan – kanpoko agintaritza independentera ere jo dezakete –, lotura-puntu egiazko eta argia aitortzean.

II. titulua gardentasunari buruzkoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan garatzen du Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea.

Titulu horretan publizitate aktiboari buruz hitz egiten da. Bertan, jendeari modu proaktiboan erakustea aurreikusten den informazio-sorta zabala azaltzen da, baita datuen irekiera eta berrerabilpena ere (open data). Bigarren kapitulua informazio publikoa eskuratzeari buruzkoa da, eta honako hauek arautzen ditu: informazioa eskuratzeko duten pertsonen betebeharrak eta eskubideak, informazioa eskuratzeko eskubidearen mugak, informazioa eskuratzeko prozedura eta aurkaratzeko prozedura. Bertan, Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren aurrean aurkaratzeko aukera eta bitartekaritza-prozedura ezartzen dira. Hirugarren kapitulua sailen arteko plangintzari eta koordinazioari buruzkoa da, labur-labur, gardentasunaren arloan EAEko ekintza publikoa kohesionatu ahal izateko. Eta, azkenik, laugarren kapituluan, zehapen-araubidea

arautzen da, zeinak eragin berezia izango baitu publizitate aktiboaren eta informazio publikoa eskuratzearen arloko betebeharrak betetzeari dagokionez.

III. tituluak, plangintza publikoari buruzkoak, Gobernuak prestatu behar duen programa definitzen du, Lehendakariak definitutako "Gobernu Programa" izenekoaren arabera. Programa horren helburua da gobernu-ekintza denboran proiektatzea, gizarteratzea eta herritarrekiko konpromisoaren eta erantzukizunaren oinarriak ezartzea.

IV. tituluak herritarren parte-hartzeari eta parte hartzeko prozesuei buruzkoa da. Alde horretatik, parte hartzeko prozedura eta tresnen alderdi orokorrak eta berme eta eskubide komunak ezartzen ditu, eta prozesu parte-hartzaile orok bete behar dituen oinarrizko baldintzak eta bermeak ezartzen ditu. Horrela, herritarren parte-hartzearen erregistroa eta interes-taldeen erregistroa jasotzen ditu. Lehenengoa parte-hartze publikorako lehentasunezko bide gisa, eta bigarrena EAEko sektore publikoaren aurrean interes-taldeen jardueraren gardentasuna eta kontrola indartzeko. Titulu horretan, halaber, nabarmentzekoa da herritarren erregelamendu-ekimenak sustatzeko eskubidearen figura sartu izana, eskemari jarraituz eta herritarren legegintza-ekimenerako gaur egun aurreikusita dauden bermeak aprobetxatuz.

V. tituluak Gardentasunaren Euskal Agintaritza-Gardena sortu eta arautzen du, eta eginkizun mistoak dituen agintaritza independente gisa marrazten da. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan gardentasunaren arloan esleitzen zaizkion funtzioez gain, informazioa jasotzeko kanpo-kanala deritzona Euskadin burutzen duen agintaritza gorenaren funtzioak ere jasotzen ditu, 2/2023 Legeak eskatzen duen bezala.

Arauek, funtsean, agintaritza horren antolamendu-erregulazioa jasotzen du, autonomia-erkidegoei – horregatik, EAERI – egiten dieten gaikuntzan oinarrituta, bai Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko 19/2013 Legearen 24. eta 36. artikuluek, bai Estatuko lege horren 24. artikuluek eta laugarren xedapen gehigarriak, hargatik eragotzi gabe informazioa eskuratzeko prozedurak, informazio-arloak eta informazioa eskuratzeko eskubidearen eta publizitate aktiboaren izapideen beste xehetasun batzuk, bai eta informazio-prozedura,

bermeak, datu pertsonalen babesa eta kanpoko kanal horren aurreko babesneurriak ere, Estatuko bi legeetan araututa egotea, Estatuak 19/2013 Legean eta 2/2023 Legean esleituta dituen eskumenen arabera.

Agintaritza horrek erabateko independentzia du ezaugarri, eta administrazio independentearen izaera horrekin sartzen da EAESLren 10. artikuluan araututakoetan. Hala, independentziari buruzko funtsezko ohar hori 19/2013 Legearen Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren antzekoa da gardentasun-alderdian, eta EAeko sektore publikoarekin lotutako eginkizunak gauzatzen ditu, bai eta, arau instituzional propioek ezartzen duten moduan, EHSBLren 4. artikuluen 2, 3 eta 4. ataletan.

Toki-erakundeei ere eragiten die, 2/2016 Legeak (ETEL) 65 artikulua honako hau ezartzen du:

65. artikulua. Gardentasunaren kontrolaren arloan eskumena duen organoaren aurreko erreklamazioak.

1. Toki-erakunde batek edo toki-erakundeen elkarte batek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berriaz edo isilbidez ukatzearen ondorioz egin daitekeen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu aurreko erreklamazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunaren eta informazio publikora iristearen kontseilu edo agintaritza independenteak edo kasuan kasuko legerian aurreikusten den organoak aztertu eta ebatziko ditu.

2. Organo horrek organoa bera sortzeko araudiak toki-erakundeeikiko eta beraien elkarteekiko esleitzen dizkion eginkizunak izango ditu, eta, bereziki, publizitate aktiboarekin, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearekin eta gobernu onarekin lotutako guztiak.

Era berean, aurreproiektuaren 8. artikulua publikotasun aktiboaren parametroak bete behar ditu, 19/2013 Legearen I. tituluko I. kapituluaren aurreikusitakoaren arabera.

Kanpoko kanalari dagokionez, erabateko independentzia bermatzen da EAEko erakunde-maila publiko guztietan jarduteko – EAEko sektore publiko osoan –, EONALen 4. artikulua, eta sektore pribatu osoan, ez-betetzeak eta jakinarazitako irregulartasunak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremura mugatzen direnean. Esparru materialari dagokionez, Agintaritzak bere eginkizunak beteko ditu, bai Batasuneko zuzenbidearen arau-hausteei dagokienez, bai arau-hauste penal edo administratibo astun edo oso astun izan daitezkeen egite edo ez-egiteei dagokienez.

Azterketa juridikoa eta zuzenbide konparatuaren eta Europar Batasuneko zuzenbidearen erreferentzia

Gardentasuna — bai emaitzarena, bai prozedurarena, bai edukiarena, bai botere publikoen jardunaren erantzukizunarena — estatu demokratikoa eta zuzenbidezkoa gauzatzen dela neurtzeko tresna bat da.

Arau honen bidez, EAEk gardentasunarekin konprometitzen da, eta eredu demokratiko bat indartzen du, pertsonei erabakiak hartzeko prozesuan errazago parte hartzeko aukera emango diona. Erakunde publikoek legitimitatea eta eraginkortasuna izateko, ezinbestekoa da herritarren aurrean erabateko erantzukizuna izatea.

Herritarrek parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko sistemak ezartzea, politika publikoen ebaluazioaren, gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen bitartez kontuak emanez, manu hauetan sartzen da:

- Konstituzioak 103.1 artikuluan dioenez, Administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, deszentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera jarduten du, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez,
- Konstituzioan, 9.2 artikuluan, herritarrek bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte hartzeko aukera erraztea botere publikoei ezartzen dien printzipioari buruz ,

- Konstituzioan, informazioa askatasunez jasotzeko oinarrizko eskubideari buruzko 20.1.d) artikuluan;
- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren (EAE) 9.2.e) artikulua araber, botere publikoen betebeharra da herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte har dezaten erraztea.
- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean, ekintza politiko oren funtsezko ardatzen oinarriaren ondoren, oinarrizko legeria gisa hainbat betebeharrak ezartzen dizkie erakunde eta organo askori.
- Era berean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea oinarrizkoak dira, gardentasunera, plangintzara, politiken ebaluaziora eta herritarrek jardura publikoan parte hartzea bideratutako kudeaketa-ereduak ezartzeko printzipioak aldarrikatu eta neurriak ezarri baitituzte,
- 37/2007 Legea, azaroaren 16koa, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzkoa; 1495/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko 37/2007 Legea garatzen duena; 951/2005 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, Estatuko Administrazio Orokorrean kalitatea hobetzeko esparru orokorra ezartzen duena, demokraziaren kalitatea hobetzeko prozesuaren zati gisa.
- 2000ko abenduaren 7ko Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean jasotako printzipioak, 11. artikuluan adierazpen- eta informazio-askatasuna aitortzen baitu, 41. artikuluan administrazio onerako eskubidea, eta 42. artikuluan erakundearen dokumentuetara irispidea izateko eskubidea, euskarria edozein dela ere;
Europako Gobernantzaren Liburu Zurian, 2001eko uztailaren 25ekoan, gizarte zibilarekiko interakziorako gardentasunari eta informazioari buruzko neurriak eta irekitasun, parte-hartze, erantzukizun, eraginkortasun eta koherentziaren bost printzipio berriak aldarrikatzen ditu, demokraziaren oinarri eta gobernu onerako eskubidearen berme

gisa, administrazioek eguneroko jardunean erabiltzen dituzten prozedurei dagokienez, demokraziaren kalitatea eta erakundeen legimititatea hobetzeko, politika, araudi eta emaitza hobeak izanik.

Zuzenbide konparatuaren ikuspegitik, bai Europar Batasunak bai estatu kide gehienek, Espainiak horien artean, legeria espezifikoa dute, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eta gardentasuna arautzen dituenak.¹

Azken batean, Europako ia herrialde guztietan, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko legeak onartu dira. Arau nazional horiek guztiek, Europako Kontseiluan eta Europar Batasunean hartutako arauekin batera, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko corpus iuris europar zabala osatzen dute.

EBren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 15. artikulua aurreikusten duenez, *"gizarte zibilaren parte-hartzea bermatzeko eta, bide horretatik, gobernantza ona sustatzeko, Batasuneko instituzio, organo eta organismoek irekitasun-printzipioa ahalik eta gehien errespetatuz jarduten dute"*.

Dokumentuak eskuratzeko eskubidea funtsezko osagaia da Europako erakundeek aplikatzen duten gardentasun-politikan. Testuinguru horretan, dokumentuetarako irispide publikoari buruzko arauak dokumentu ofizialetarako irispideari buruzko Europako Kontseiluaren 205. Hitzarmenean eta Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen dokumentuetarako irispideari buruzko 1049/2001 (EE) Erregelamenduan agertzen dira.

2009an, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea aitortu zuen, GEEHren 10. artikuluan aurreikusitako adierazpen-askatasunaren barruan. Eta 2009an bertan, dokumentu ofizialak eskuratzeari buruzko ekainaren 18ko 205. zenbakidun Hitzarmena onartu zen.

¹ Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu LA TRANSPARENCIA EN LA UNIÓN EUROPEA: UNA VISIÓN COMPARADA. ESPECIAL REFERENCIA AL DERECHO DE ACCESO A LA INFORMACIÓN PÚBLICA. Valle Ares González. Revista del Consejo Escolar del Estado n.3/2013

Batasuna osatzen duten hogeita zazpi estatuetatik hamazazpitan, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea aitortuta dago Konstituzioan edo konstituzio-balioa duten arauetan, eta berriaz gai horri buruzko legeetan araututa dago.

Bestalde, EBren Tratatuaren 11. artikulua honako hau xedatzen du: *Erakundeek aukera emango diete herritarrei eta ordezkaritza-elkarteei, bide egokiak erabiliz, beren iritziak publikoki adierazi eta trukatzeko, Batasunaren jardun-eremu guztietan. Erakundeek elkarrizketa irekia, gardena eta erregularra izango dute ordezkaritza-elkarteekin eta gizarte zibilarekin.*

Ildo horretan, Europako Parlamentuak, Europar Batasuneko Kontseiluak eta Europako Batzordeak gardentasun-erregistro komun bat dute, irekiak eta gardenak izateko konpromisoa erakusteko.

Gardentasun-erregistroak erraztu egiten du pertsonak informazioa lortzea Batasuneko erakundeen aurrean interesak ordezkatzeko egiten diren jardueri buruz.

Bestalde, Suediari jarraiki, Europan informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erregulazioan aitzindari izan diren herrialdeak eskandinaviarrak izan dira: Finlandia 1951n eta Danimarka eta Norvegia 1970ean. Ondoren, Herbehereak eta Frantzia izan ziren 1978an; Grezia 1986an; Austria 1987an; Italia 1990ean; Espainia eta Ukraina 1992an; Portugal 1993an eta Belgika 1994an. Geroago, XX. mendearen amaieran eta XXI. mendearen hasieran, nabarmen handitu da Europako herrialdeen kopurua, eta, informazioa eskuratzeko legerik izan gabe, hutsune hori betetzea erabaki da: Islandia 1996an; Irlanda 1997an; Letonia 1998an; Liechtenstein, Albania, Txekiar Errepublika eta Georgia 1999an; Erresuma Batua, Estonia, Lituania, Eslovakia, Moldavia eta Bulgaria 2000n; Polonia, Errumania eta Bosnia-Herzegovina 2001ean; Kroazia, Kosovo, Eslovenia eta Armenia 2003an; Suitza eta Serbia 2004an; Alemania, Montenegro eta Hungaria 2005ean; Mazedonia eta Hungaria 2005ean; Espainiak 2013an onartu zuen Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legea.

Herrialde horietako batzuek dagoeneko aldatu dituzte gardentasunari eta informazioa eskuratzeari buruzko hasierako legeak, eta, haien ordeztan, lege

modernoagoak ezarri dituzte, gizartearen eskaera berrietara eta informazioaren teknologien bilakaerara egokituta.

GUICHOTek (2011) ² deigarria egiten du mendebaldeko Europako herrialdeek, oro har, araudi labur eta nagusiak onartu izana; herrialde anglosaxoiek, berriz, Ekialdeko Europakoekin batera, lege askoz zehatzagoak onartu dituzte.

Azkenik, atal honetan, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea aipatu behar da. Arau hori oinarritzkoa da gehienbat, eta EKren 149.1 artikulua 1., 13. eta 18. zenbakien eskumen-tituluetan oinarritzen da.

Esparru horretan, eta publizitate aktiboari dagokionez, gardentasunaren lege on batek ahalbidetu behar du arduradun publikoek hartzen dituzten erabakiak aztertzea. Helburu hori lortzeko behar den informazioa herritarrentzat tratamendu arina eta erraza ahalbidetuko duen formatu batean erakutsi behar da.

Informazioa eskuratzeko legezko eskubideari dagokionez, eskubide hori pertsonen informazio-askatasunerako eskubidearen esparruan sartzen da, gai publikoetan parte hartzeko oinarritzko eskubideari estuki lotuta (24. artikulua EK), Europako Kontseiluak, EBk eta legeria propioa duten estatu kide gehienek gaiari eman dioten ikuspegi bera.

Azken batean, egin den aurreproiektuak estatuko lurraldean autonomia-erkidegoek (ikus, adibidez, 1/2022 Legea, apirilaren 13koa, Valentziako Erkidegoko gardentasunari eta gobernu onari buruzkoa) eta foru-erakundeek (guztien ordez, 4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa, Gipuzkoako foru-gobernantza publikoaren esparruan) onartutako azken arauak erabiltzen ditu. Ildo horretan, gardentasunaren arloan adierazitako azken ratioekiko konpromisoa adierazten du.

Orain arte deskribatutakoarekin lotuta, hau da, gardentasunarekin eta informazioa eskuratzeko eskubidearekin, Administrazio Publikoko herritarrek

² GUICHOT, Emilio: *Transparencia y acceso a la información en el Derecho Europeo*, Editorial Derecho Global-Global Law Press, colección Cuadernos Universitarios de Derecho Administrativo, Sevilla, 2011

kontrolatzeko eta ustelkeria prebenitzeko tresna gisa, politika kokatu behar dugu, Batasuneko arauen urraketen berri ematen duten pertsonak babesteko sistema integral bat ezartzeagatik, eta Espainiako Estatuaren kasuan, berriz, arau-hauste administratibo eta penal astunak edo oso astunak.

Esparru horretan, arau-iturri nagusia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentaraua da, Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa (Zuzentaraua). Zuzentarau hori otsailaren 20ko 2/2023 Legearen bidez txertatu zen (2/2023 Legea, arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko txostenak egiten dituzten pertsonen babesa arautzen duena).

Whistleblowing izenez ezagutzen denak askatasunez hitz egiteko eskubidea du oinarri, eta integritate- eta gardentasun-printzipioei lotuta dago. Helburu espezifikokoak 1 dira. Informatzaileen babesa indartzea eta errepresaliak jasatea saihestea. 2. Argitasuna eta segurtasun juridikoa ematea. 3.- Arlo horretako informazioa mugatzen duten faktore soziokulturalen aurkako sentsibilizazio- eta borroka-ekintzak babestea.

Azken batean, zuzentarauaren xedea da Europar Batasuneko herrialdeetan ustelkeriari, iruzurrei eta legeen urraketek buruzko informazioa ematen duten pertsona guztiak babestea, komunikazio-kanal babestuak ezarriz eta haien aurkako errepresalia oro debekatuz.

Zuzenbide konparatuan, merezi du aipatzea ordenamendu hauek, "alerta-emaileak" babesteko arau-neurriak sartu baitituzte:

- Herbehereak. Salatzaileentzako Etxearen Legeak (Wet Huis voor klokkenluiders), 2016ko uztailaren 1ekoak, 50 langile edo gehiago enplegatzen dituzten enpresak behartzen ditu irregulartasunak salatzeke barne-politika bat ezartzera. Legeak errepresaliak debekatzen ditu, baldin eta enplegatuak uste osoa bazuen bere txostena egiazkoa zela.
- Erresuma Batua. Irregulartasunen salaketa interes publikoko informazioa jakinarazteari buruzko 1998ko Legeak babesten du (Erresuma Batuko Gobernuak, 1998). Lege horrek modu sektorialean – lan-zuzenbidea-

interes orokorraren alde jarduten duten salatzaileak errepresalietatik babesten ditu, bereziki Enplegu Auzitegian salaketa bat aurkezteko eskubideaz baliatuta eta bidegabeko kaleratzeen kasuan neurri zuzentzaileak hartuta.

- Suediako Konstituzioaren Adierazpen Askatasunari buruzko Oinarrizko Legeak eskubide zabalak aitortzen dizkie herritarrei informazioa argitaratzeko, eta salatzaileen anonimotasuna eta konfidentzialtasuna babesten ditu (Suediako Gobernu, 1991).
- Modu sektorialean, babes hori jasotzen da lan-zuzenbidearen arloan Italiako lan-legerian, salatzaileak kaleratzeetik babesten baititu (Italiako Gobernu, 2017).
- Frantzia, 2016ko abenduaren 9ko 2016-1691 Legeak, gardentasunari, ustelkeriaren aurkako borrokari eta bizitza ekonomikoaren modernizazioari buruzkoak (Frantziako Gobernu, 2016), enpleguari esleitzen dio salaketa zuzeneko edo zeharkako gainbegiraleei, enplegatzailerari edo izendatutako edozein ordezkari aurkezteko erantzukizuna.

Estatuan, 2/2023 Legeak erantzuna ematen dio, transposizio-epaia betetzen ez badu ere, Europar Batasun osorako esparru juridiko harmonizatua ezartzen duen Zuzentarauaren aginduari. Bertan, estatu kide bakoitzak bere barne-arauen edukia egokitu beharko du, erakunde publiko edo pribatuen barruan dauden pertsonen babes eraginkorra bermatuko duen araubide juridiko bat ezartzeko.

2/2013 Legearen zioen azalpenean ohartarazten denez, *"autonomia-erkidego batzuek dagoeneko arautu dituzte herritarren jakinarazpenak jasotzeaz arduratzen diren erakundeak, irregulartasunen berri emateko. Adibide gisa, eta toki-erakunde batzuek sortutako agintaritzei kalterik egin gabe, gogoratu behar da Katalunia, Valentzia, Balear Uharteak, Nafarroa, Asturiasko Printzerria edo Andaluzia autonomia-erkidegoek salatzaileen babesaren gaia jorratu dutela, nahiz eta erregulazioa partziala izan den eta funtsean bulegoak edo agentziak sortzean oinarritu den, honako hauek prebenitzeko eta ikertzeko berariazko eginkizunarekin: funts publikoen erabilera edo erabilera iruzurrezkoak, interes-gatazkak edo informazio pribilegiatuaren erabilera dakarten jarduketan*

ondoriozko aprobetxamendu ez-zilegiak, edo, oro har, osotasunaren aurkako jokabideak; hau da, legeria hori eremu publikora mugatu dute, kasu batzuetan 2019/1937 Zuzentarauaren aurretik”.

EAEren kasuan, aurreproiektua Zuzentaraua eta 2/2023 Legea baino geroagokoa da, horien tributua baita.

Kanpoko informazio-kanalari dagokionez (horretara mugatzen da aurreproiektua), 2/2023 Legeak prozedura horretan informatzailearen eskubide eta berme guztiak arautzen ditu, bai eta informazioak jasotzeko eta haien jarraipena egiteko prozedurak berrikusteko eskakizuna ere. Autonomia-erkidegoek kanpoko kanalak ezar ditzakete. Kanal horiek Informatzailea Babesteko Agintaritza Independentearen antzeko agintaritza independente autonomikoek kudeatuko dituzte, eta haien eskumena hedatu ahal izango da soilik lege honen aplikazio-eremuan dauden eta kasuan kasuko autonomia-erkidegoko sektore publikoko, autonomikoko eta tokiko erakundeen eremuan egiten diren arau-hausteei buruzko informazioetara.

EAEen kanpoko kanal hori sortzeko aurreikuspena eskatzen du informatzailearen babes osoak zigorgabetasun-gunerik ez uztea eskatzen duelako eta horrek kanpoko kanal propio autonomiko bat izatera behartzen duelako. Egia da, halakorik ezean, 2/2023 Legeak ahalbidetzen duela kanpoko kanalera jotzea Informatzailea Babesteko Estatuko Agintaritza Independentearen bidez, esan bezala, agintariak sortzea edo beren autonomia-erkidegoko organoei esleitzea aurreikusi ez duten lurraldeetan, beren eskumenen barruan. Aurreikuspen hori Konstituzio Auzitegiaren 130/2013 Epaiaren arabera hartu da. Epai horretan honako hau adierazten da: *"Horrelako kasuetan, Espainian Erkidegoko erregelamenduak betearazteko arauak ezartzen dituzten Estatuaren xedapenak, oinarrizko edo koordinazioko arautzat hartu ezin badira, autonomia-erkidegoek beren eskumenen helburu berberetarako ematen dituztenen osagarri izango dira. Ahaztu gabe EKren 149.3 artikuluko osagarritasun-klausula ez dela eskumenak esleitzeko klausula unibertsala; halakoetan, guztiz justifikatuta dago Estatuak ordezkoko arau berritzaileak emateko aukera "*.

Aurreproiektuak 2/2023 Legearen eta aipatutako Zuzentarauaren ondoriozko esparruaren barruan egituratzen du kanpo-kanal horren antolaketa, eta behar bezala ezartzen du agintaritza independente bakarra EAEko lurralde osorako, zeinak erakunde publikoak eta sektore pribatua lotzen baititu bere lurralde-eremuan egiten diren arau-hausteei dagokienez.

Ildo horretan, indarrean dagoen araudia betetzen du, haren esparruan eta EAEko Autonomia Estatutuan ahalmen hori ematen dioten eskumen-tituluak garatuz, jarraian ikusiko dugun bezala.

PROPOSATUTAKO ARAUA ESKUMENAK BANATZEKO ORDENARA EGOKITZEA.

Aurreproiektuaren eskumenak EAEEren 10. artikulua, beren autogobernu-erakundearen antolaketa, araubide eta funtzionamenduaren arloko eskumenak ematen dituztenak, bai eta Euskal Herriaren zuzenbide substantiboaren berezitasunetatik eta berezko antolamendutik eta Euskal Autonomia Erkidegoaren beraren sektore publikotik eratortzen diren administrazio-prozeduraren arauenak ere, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren beste arau batzuek eragiten ez dioten bitartean.

